


---

## Mitokondrioak ez dira guztiz itzaltzen minbizi-zeluletan

Nazioarteko ikerketa batek lipidoen sintesian parte hartzen duen entzima bat identifikatu berri du, hura inhibituz gero saguetan prostatako minbizia- ren metastasia geldiarazten duena. Horrek agerian utzi du lipidoak inplikatura daudela minbizi-zelulen hazkuntzan eta metastasian, eta erakutsi du ez dela glukosa eragile bakarra.

*Nature Genetics* aldizkarian argitaratu da ikerketa berria, eta Arkaitz Carracedo Pérez CIC bioGUNEko ikertzaileak parte hartu du lan horretan. Haren iritziz, minbizi-zelulen elikadura bere osotasunean ulertze-ko aurrerapauso bat izango da. "Orain arte, ikuspegi oso sinplista izan dugu. Historikoki pentsatu izan da minbizi-zelulek mitokondrioak itzali egiten zituztela. Hala, energia sortzeko zentralak itzalita, glukosa energia lortzeko erabiltzeari utzi, eta zelula berriak sortzera bideratzen zutela etengabe". Ikerketa berriak, ordea, agerian utzi du mitokondrioak ez direla itzaltzen, identifikatu duten entzima (PDC konplexua) mitokondrioetan baitago aktibo, eta protagonista berri bat jarri du metastasia kontrolatzeko estrategiaren erdigunean: lipidoak. ●



ARG.: DollarPhotoClub

---

## TRAPPIST-1 exoplanetak eguzki-sistemako planeten antzekoak dira

laz jakin zen TRAPPIST-1 izar nano gorri eta hotza- ren inguruan [zazpi planeta zeudela](#), eta haietako batzuk bizigarriak izan zitezkeela aurreikusi zen. Urtebeteko ikerketen ondoren, emaitza berriak argitaratu dituzte: zazpi planetetatik gehienak arrokatuak dira eta badute ura. Zehazki, haien masaren % 5 da ura, Lurraren beraren kasuan baino dezente gehiago (ozeanoak gure planetaren masaren % 0,02 baino ez dira). Ikertzaileen ustez, emaitza berriek erakusten dute TRAPPIST-1eko planetak eguzki-sistemako planeten antzekoak direla zentzu askotan.



TRAPPIST-1eko planeta batetik egon daitekeen ikuspegi erakusten duen irudikapen artistikoa. Izarreraino duen distantziak aukera eman lezake ura egoera likidoan egoteko. ARG.: ESO/N. Bartmann/spaceengine.org.

Zazpi exoplanetak epelak direla dirudi, hortaz, denek izan litzakete ura bere forma likidoan egotea baimenduko luketen baldintza geologiko eta atmosferikoak. Aurrerantzean saiatuko dira argitzen planeta guztietatik zein den bizigarria izateko aukera gehien duena. Oraingoan, badirudi zazpietatik erdikoa dela Lurraren antzekoena izan daitekeena, baina argitzeke dago nolakoa den bere azala eta atmosferarik ba ote duen. ●